

Gaur hasiko da
zinemaren jaia
Donostian
Atzo iritsi ziren
lehenengo izarrak

• osteguna •

1998ko irailaren 17a -- IX. urtea -- 2.413. zenbakia -- Salneurria: 125 pta. 6 libera

..... 26-31

Su-eten mugagabea aldarrikatu du ETAK

politika

■ **Arzalluzen arabera, Lizarrako Adierazpena Ajuria Eneko Itunaren garapena da → 8**

■ **Bartzelonako Adierazpena**

Espainiako Estatuaren aniztasuna onartu ezean, Europara begiratuko dute nazionalitateek → 9

gizartea

■ **Gizarte Erakundeen Kontseiluak euskara sendotzeko akordioa bultzatuko du**

Kontseiluak euskararen etorkizuna bermatuko duen XXI. Mendeko Akordioa bultzatuko du, eta eragile sozial eta politiko guztiekin bilduko da. Akordio hori ahalbidetzeko kanpaina bati ekingo dio Kontseiluak udazkenean, *Bai euskarari* lelopean. → 10

ekonomia

■ **Sindikatuak lan istripuak murrizteko legea egiteko eskatu diote Nafarroako Parlamentuari → 14**

nazioartea

■ **Albania**
Berishari inmunitatea kentzeko eskatu du Gobernuak → 17

kirola

■ **Oriok irabazi du Euskal Liga, Bermeon nagusitu ondoren → 21**

Bihar jarriko du indarrean «ekintza armatuen etenaldi orokorra»

■ «Autonomismoaren alde apostu egin zutenak (EA, PNV, ELA eta abertzale zintzo ugari) bide horren antzutasunaz jabetu dira. Oraingoan bide berri bati ekiteko borondatea agertu dute»

■ «Urteotako borrokari esker, gizarte sail berriak independentziaren aukerara hurbildu dira. Azken sei urteotan erresistentzia jarreratik eraikuntza praktika batetara igaro bait gara»

■ «Aukera paregabea ikusten dugu Euskal Herriaren independentzia bidean ardura eta esfortzuak konpartitu eta elkarlanerako adostasun eta bilgune berriak sor daitezen»

■ «Jasoko dugun erantzuna emandako urratsaren neurrikoa izango den esperantzaz beterik, une honetatik aurrerako gertakizun eta urratsek aginduko dute etenaldi horren behinbetikotasuna»

■ **MUGARIK GABEKO** su-eten orokorra aldarrikatu du Euskadi Ta Askatasuna erakunde armatuak, EGUNKARIARI helarazitako agirian. ETAK bihar jarriko du indarrean «eraso armatuen etenaldi orokor bat», eta etenaldi horren «behinbetikotasuna» une honetatik aurrerako gertakizunek aginduko dutela nabarmendu du, «jasoko dugun erantzuna emandako urratsaren tamaina eta neurri berekoa izango delako esperantzaz beterik». Euskal Herria etorkizunari aurre egiteko «aukera berri baten atarian» dagoela dio ETAK: «Abertzale, demokrata eta aurrerazale guztion artean, Euskal Herri osoa bere baitan hartuko duen marko politiko berri baten eraikuntzan aintzindaritza lana egitea dagokigu. Eta lanbide pizgarri horretan Euskal Herri osoko gizarte eragile guztiek dute lekua, hitza eta zeregina». **Adierazpena** izeneko atalean, ETAK dio «gaur egun aukera paregabea» ikusten dela «Euskal Herriaren independentzia bidean ardura eta esfortzuak konpartitu eta elkarlanerako adostasun eta bilgune berriak sor daitezen». Bide horretan, «urrats guztien artean garrantzia haundienekoa gaur egungo zatiketa instituzional eta estatuzkoa gainditze bidean jartzeko» izanen dela dio. → 4-6

«... Euskadi Ta Askatasunak bere aldetik mugarik gabeko eraso armatuen etenaldi orokor bati ekiteko asmoa jakinarazten du, bere zereginak ohizko hornitze-lan, egituren mantentze eta balizko enfrontamenduetan defenditzeko eskubidera soil-soilik murriztuz. Su-eten orokor horrek 1998ko irailaren 18an izanen du hasiera.»